

IRABAZI ITURRIAK

Gure edalontzien salmenta izango da gure irabazi-iturri nagusia. Argi dago dirua lortuko dugula aktiboen (edalontziak) salmentarekin, hau da, gure produktua bezeroari saltzen diogu eta jabetza osoz eskuratzen du. Ez da harpidetza edo lizentzian oinarritzen den produktu bat.

Hala ere, negozio eredu osatzeko, renting edo alokairu sistema ere eskainiko genuke. Bereziki festibaletan erabiltzen dira edalontzi asko, eta askotan jendeak bota egiten ditu edo galtzen dira. Hondakin hori saihesteko eta ingurumenean eragin txikiagoa izateko, guk edalontzi berrerabilgarriak utziko genituzke ekitaldiaren iraupenerako, eta gero bueltan jasoko genituzke. Honela, bai festibalak bai guk onura lortuko genuke: festibalak hondakin eta garbiketa kostuak murriztuko lituzke, eta guk alokairuaren bidez diru-sarrerak izango genituzke.

Gainera, publizitatearen bitartez diru-sarrerak lortuko genituzke. Garagardo markekin edo beste edari-enpresa batzuekin kolaborazioak eginez, gure edalontzietan haien logoa edo irudia agertzea eskainiko genieke. Horren truke, kostuen zati bat haiek ordainduko lukete, eta gure produktuek ikusgarritasun eta balio erantsi handiagoa izango lukete.

Horrez gain, subentzioak edo diru-laguntzak ere lor genitzake, gure proiektua jasagarria eta ingurumenarekin lotua denez. Hondakinen murrizketa, berrerabilera eta ekonomia zirkularra bultzatzen dituzten tokiko, estataleko edo europar programetara aurkezteko aukera izango genuke.

Azken batean, gure diru-sarrerak lau iturri nagusitan oinarrituko dira: edalontzien salmenta zuzena, renting edo alokairua, publizitatearekin lortutako sarrerak eta jasotako subentzioak. Eredu honek aukera emango digu negozio jasagarri eta errentagarri bat garatzeko.